

Elkartek 42

INFORMAZIO ALDIZKARIA

ESPAÑA
ESPAÑA



FRANKEO
ORDAINDUA
FRANQUEO
PAGADO

PUBLIPOSTA
PUBLICORREO

Cogoratu ...

ARABA

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 96-98 behea
Tel. eta Faxes: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxes: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxes: 94 405 36 69
48014 BILBAO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

%100ean birziklatutako paperean inprimatua

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.

GIPUZKOA

- **AGAEB**
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarteak.
- **AGI**
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarteak.
- **ANAIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetasuna.
- **ASPARGUI**
Gipuzkoako parkinson elkarteak.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarteak.
- **DEBABARRENKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarteak.

BIZKAIA

- **A.C.C.U.**
Crohn-en eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarteak.
- **ADELA**
Alboko Esklerosi Amiotrofikoa duten Gaixoen Elkarteak.
- **A.D.E.L.E.S.**
Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarteak.
- **ADISA**
Santurtziko minusbaliatuen elkarteak.
- **ADEMBI**
Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarteak.
- **ALCER**
Giltxurruneke gaixotasunen aurkako elkarteak.
- **ASEBI**
Asociación Bizkaia elkarteak espina bífida e hidrocefalia.
- **Gutxitasun fisikoa duten pertsonen gurasoen bizkaiko elkarteak.**
- **Lea-Artibaiko ahalurri fisikoen elkarteak.**
- **AHEVA.**
Eusko hemofiliaren elkarteak.
- **ARGIA**
Ostomizatuen eta inkontinenteen euskal elkarteak.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarteak.
- **AUXILIA**
- **A.V.A.H.**
Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarteak.
- **B.E.N.E.**
Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarteak.
- **BIDARI**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonen ermuko elkarteak.
- **BIZKEL**
Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak.
- **CODISFIBA**
Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarteak.
- **FRATER**
Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarteak.
- **L.E.V.A.R.**
Artritis reumatoidea duten pertsonen elkarteak.
- **EFELA**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonen arratiko elkarteak.

AURKIBIDEA

Agurra /Aurkezpena..... 3

Orokorra

Elkartean-en jarrera eta ekarpenak..... 4

Elkartean-en txostena..... 6

Laguntza pertsonala eta
bizimodu independentea 9

Araba

Eginaren Eginez dibertsitate funtzionala
ikusarazteko VIII. martxan 12

Eginaren Eginez jolas jaialdian..... 12

Familien plataforma..... 13

Eskola-kanpaina: Auzokideak 2014..... 14

Hezkuntza: beharren diagnostikoa..... 15

Aldarrikapenak enpleguaren arloan..... 16

Emakumeak ahalduntzeko lantegia..... 17

Eginaren Eginez gizarte-zerbitzuen alde 18

Bizkaia

Laguntza pertsonalerako zerbitzu berria..... 19

Marcelino Fernández 21

Fekoor-ek Aspid saria jaso du..... 22

Fekoor-ek "Oztoporik gabe" azokan hartu du parte 23

Emakundek erakunde lankidetzat izendatu du Fekoor 24

Fekoor-en aisia inklusiboa eta oporrak 25

Gipuzkoa

Elkartuk prestatutako ikerketa-proiektua..... 27

Elkartuk bere webgunea berritu du..... 28

Lurralde-ordezkaritzarekin izandako bilera..... 28

Autobus-geltoki berria Donostian..... 29

Zaintzak-cuidados eta gunea..... 30

Bonotaxia Mutrikun eta Zestoa..... 31

Berritze- eta irisgarritasun-obrak egiteko diru-laguntzak 31

Elkarte⁴²

Nahi genuena baino denbora gehiago igaro da Elkarte aldizkaria azkenekoz bidali genuenetik. Laguntza publikoen murrizketak eragindako eteldi horren ostean, poz handiz helarazten dizuegu ale berria. Horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan gutxitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen defentsarekin lotutako gaiak jorratu ditugu.

Elkarteanek, bere ibilbide osoan zehar, garrantzi handia eman dio Elkarte aldizkariari; izan ere, Konfederazioak egindako jarduerak azaltzeko komunikazio-tresna ez ezik, gutxitasuna duten pertsonen bizi-kalitateari eragiten dioten politiken, neurrien eta jardueren berri emateko informazio-iturria ere bada, eta hala, kolektiboaren parte-hartze aktiboa sustatzen du.

Hortaz, ahal dugun neurrian eta eskura ditugun baliabideek uzten diguten maiztasunarekin, aldizkaria inprimatuta bidaltzen saiatuko gara. Ezin izango bagenu, edota osagarri gisa, beste bitarteko batzuen bidez emango dizuegu informazioa, hala nola gure web-orriaren bidez; horretan, eskuragarri dituzue Elkarte aldizkariaren ale guztiak, formatu elektronikoan.

ELKARTEAN-EN JARRERA ETA EKARPENAK EUSKO JAURLARITZAK ARAUAK GARATZEKO PROPOSATUTAKO EKIMENETAN: KOORDAINKETA, EGOITZA-ZENTROEI BURUZKO DEKRETUA ETA HIRUGARREN SEKTOREARI BURUZKO LEGEA.

Eusko Jaurlaritza zenbait esparru arau-emailetan lan egiten ari da aurren, eta ELKARTEANek, haiei dagokienez eta berariaz irekitako kontsulta-tramiteen barruan, proposatutako zirraborroei buruzko jarrera-dokumentuak eta ekarpenak egin eta igorri ditu, Euskadin desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonen eskubideak eta interesak defendatzeko.

Esparru arauemaile hauek nabarmentzen ditugu:

- **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren doakoak ez diren prestazioen eta zerbitzuen finantzazioan erabiltzaileek parte-hartze ekonomikoa (koordinaketa) izateko irizpide orokorreko buruzko dekretua.** Kasu honetan, Eusko Jaurlaritza proposatutako zirraborroari buruzko hobekuntza-ekarpen batzuk egiteaz gain, ELKARTEANek bere jarreraren azpimarratzen du uste duela Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Erantzukizun Publikoko Sareko prestazio eta laguntza-zerbitzu profesional guztiek doakoak izan behar dutela onuradunentzat, karteran ezartzen diren baldintzetan, onuradunen premien arabera eta nahitaezko kontraprestaziorik gabe. Erabiltzaileek ez

lukete ordaindu behar izango kontraprestazio ekonomikorik laguntza profesionalerik zerbitzuen truke edo laguntza profesionalen truke karteran jasotako zerbitzuetako edozeinetan. Eta hori ezin onar daitekeelako desgaitasun edo behar soziala sorburu duten premiei, laguntzari edo konpentsazioari lotutako kosturik. Eta hori, halaber, berdintasun-printzipioa nahiz desgaitasunagatik ez diskriminatze printzipioa betetzeko, eta bat etorri Nazio Batuen Konbentzioarekin eta 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuarekin (azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena).

- Desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroei buruzko Dekretua. Kasu honetan, halaber, Eusko Jaurlaritza proposatutako zirraborroa hobetzeko zenbait ekarpen egiteaz gain, ELKARTEANek adierazten du egoitza-zentroak aukera-eskaintza zabal baten barruan sartu behar direla, pertsonak hautatzeko askatasuna izan dezan, ziurtatzeko *pertsonek non eta norekin bizi aukeratu ahal izatea, beste edonork dituen aukera berdinekin, bizitzeko modu jakin batera mugatu gabe* (Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 19. artikulua). Gainera, botere publikoek ziurtatu behar dute desgaitasunen bat duten pertsonen eskura izango dituzela *etxer etxeko eta egoitzetako zerbitzuak eta laguntza, bai eta komunitateko bestelako laguntza-zerbitzuak ere, laguntza pertsonala barne, era horretan bizitza errazteko, gizarteratzeko eta bakartuta edo komunitatetik baztertuta ez geratzeko*. Alde horretatik, ELKARTEANen ustez, desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroak arautzea kolektibo horretarako laguntza-bide guztien “aukera handitzea” da, haien beharrak eta hautuak kontuan hartuta, bizimodu independenterako bizitza autonomoaren ildoa.
- **Hirugarren Sektore Sozialaren Legea.** Kasu honetan, Eusko Jaurlaritza proposatutako zirraborroetarako ekarpen batzuk egin ditu ELKARTEANek. Gobernantza-printzipioan eta elkarrizketa zibilean oinarritzen dira


ELKARTEANen jarrera eta alegazioak, bereziki eta lehentasunez honako hauek kontuan hartuta:

- Hirugarren sektoreari gizartea eraldatzearen ikuspegitik dagokion eginkizuna indartzeko eta ikusgai bihurtzeko beharra, honako hauek lortzen lagundu behar baitu: erabateko aukera-berdintasuna, irisgarritasun unibertsala eta diseinua pertsona guztientzat, herritar guztien parte-hartzea eta inklusio soziala. Zerbitzuak ematen dituen eragilea baino gehiago dela kontuan hartuta.
- Erakundeak hirugarren sektorekotzat hartzeko, beharrezkoa eta oinarritzkoa izatea haiek kolektiboan eta pertsonen eskubideak eta interesak ordezkatzea eta defendatzea, egiazko aukera-berdintasuna, parte-hartzea eta gizarte-inklusioa lortzeko. Hirugarren sektoreko erakunde gisa hartua izateko esplizituki honako hauek eskatuta:
 - Estatutuetan berariaz adieraztea beren helburuetako bat dela beren jardueraren xede diren pertsonen, familien, taldeen, kolektiboan eta/edo komunitateen eskubideak eta interesak ordezkatzea.
 - Gobernu-organoetan kontuan hartzea ordezkatzen dituztenen edo beren jardueraren bidez defendatzen dituzten eskubideak eta interesak dagozkien pertsonen parte-hartze eraginkorra.
 - Kudeaketa-autonomia eta independentzia izatea hirugarren sektorekotzat hartzen ez diren erakundeei dagokienez: administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak.

Gainera, erakunde batzuetan administrazio publikoek edo merkataritza-enpresek nola edo hala parte hartzen badute, haiek hirugarren sektoreko erakundetzat ez hartzeko eskatzen da. Era berean, merkaturako ekoizpen-erakunde pribatuak, bazkideen beharrak merkatuaren bidez (ondasunak eta zerbitzuak ekoiziz, aseguratuz edo finantzatzuz) betetzeko sortutako enpresak, hirugarren sektoreko erakunde ez izatea proposatzen

du esplizituki, haietan etekinaren banaketak eta erabakiak hartzeko moduak lotura zuzena ez badute elkartutako pertsona bakoitzak jarritako kapitalarekin (boto bat dagokio haietako bakoitzari); hau da, antolaketa demokratikoa duten eta etekinen banaketa bazkideak jarritako kapitalari lotu gabe egiten duten enpresak. Besteak beste: kooperatibak, mutualitateak, lan-sozietateak, enplegu-zentro bereziak eta ekonomia sozialeko gainerako erakundeak...; are estatutuetan zehaztutako helburu sozialen artean etekina maximizatzea ez duten merkataritza-sozietate tradizionalak ere.

- Ziurtatu behar izatea kolektiboak ordezkatzen dituzten gizarte-erakundeek benetan eta modu eraginkorrean parte hartzen dutela honako kolektibo hauen gainean egiten diren legeak eta politika ofizialak diseinatzen, abiarazten, haien jarraipena egiten eta ebaluatzen: desgaitasunak dituzten pertsonak, gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonak edo pairatzeko arriskua dutenak, adinekokoak, eta gure gizartean egoera ahulean dauden gainerako kolektiboak.
- Politika, esparru eta funtsezko sistema guztien zeharkakotasuna ziurtatzeko beharra, haien egiazko lankidetzeta eta osagarritasuna beharrezkoa bada pertsona horien aukera-berdintasuna, parte-hartzea, bizi-kalitatea, bizimodu independentea, autonomia eta garapena ziurtatzeko: gizarte-zerbitzuak, enplegua, osasuna, hezkuntza, aisialdia, ga-raioa, etxebizitza, kultura, irisgarritasuna...



ELKARTEAN-EN TXOSTENA FEKOOR-EN VII. JARDUNALDIETAN

ELKARTEANek Bizkaia Desgaitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen buruzko VII. Jardunaldietan esku hartu zuen. Jardunaldiak Fekoor-ek antolatu zituen, eta Bilbon egin ziren 2014ko ekainaren 17an, Bizkaia Aretoan. ELKARTEANek txosten hau aurkeztu zuen: “Hirugarren sektorearen eginkizuna desgaitasunaren ereduaren eraikuntzan. Errokkak, mehatxuak eta ikuspegi berriak”.

Txostenean, ELKARTEANek nabarmendu zuen zein den hirugarren sektoreak bere ikuspuntuaren arabera desgaitasunaren ereduaren eraikuntzan betetzen duen eginkizuna: eragile erantzunkidea izatea gizarte-eraldaketan, baterako eraikuntzan, funtsezkoak diren beste eragile batzuekin batera (herri-administrazioak, erakundeak, gizarte-eragileak, gizartea oro har, eta abar). Eta erantzukizun aktiboaren kontzientzia horrek elkarren artean osagarriak diren zenbait funtzioaren garapena dakar berekin:

- Diskriminazio- eta desparekotasun-egoerak salatzea.
- Eskubide eta aukera berak aldarrikatzea, bai eta parte hartzeko baldintza hobek ere.
- Herritarrak sentsibilizatzea.
- Gure eskubideen erabileran, berdintasunerako proposamenak egitea.
- Herritar-mugimendua bideratzea, motibatzea eta aktibatzea, parte-hartze eraginkorra izan dezan gizarte-eraldaketan.

Horren ildotik, eta aipatu erantzukizuna oinarri hartuta, azken urteetan aukera-berdintasunean, irisgarritasun unibertsalean eta pertsonen parte-hartzean izan diren aurrerapenetan lagundu du ELKARTEANek.

Zehazki, hirugarren sektoreko erakundeek ekarpen horiei esker lortutako aurrerapauso hauek azpimarra daitezke:

→ Eskubideak bermatzen dituzten esparru arauemaile berriak, eskubide osoko herritar izan gaitzen. PERTSONA BERDINAK, ESKU HARTU ERE EGIN DEZAKEGUNA. Alde horretatik, Konbentzioa eta funtsezkoak diren beste arau batzuk nabarmendu behar dira: LISMI, LIONDAU (orain, desgaitasun-lege berriaren bateratuta daude); gizarte-zerbitzuei buruzko lege berriak; irisgarritasun-legeak; ekintza positiboko neurriak esparru arauemaile batzuetan (adibidez: etxebizitza-erreserba desgaitasuna dutenentzat; lanpostuak egokitzeko laguntzak; erreserbak enplegu publikoan, desgaitasuna dutenentzat; eta abar).

→ Aurrerapausoak irisgarritasun-arloan. Besteak:

- Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legea.
- Irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen 68/2000 Dekretua.
- Zenbait udalerriko irisgarritasun-planak.
- Ezagutzan egindako aurrerapausoak, eta funtsezko eragileen inplikazioa: herri-administrazioak, udal-teknikariak, arkitekturako eta hirigintzako profesionalak, epaileak, Arartekoa, garraio publikoa, unibertsitateak eta abar.



- ↪ Herritarrek oro har gehiago aitortzea irisgarritasunak balio erantsia dakarkiola gizarte osoari. Gizarteak onartzen du desgaitasuna dutenen berdintasunean egindako aurrerapau-soak onuragarriak direla pertsona guztientzat.
- ↪ Desgaitasunaren mugimendu asoziatiboa indartzea. Lankidetzaren sareak sustatuz. Gizarteraldaketan, sortutako sare eta plataformen bultzadak eragindako baterako indarrari esker lortu dira aurrerapenak, betiere haien eragina noiz handiagoa noiz txikiagoa izanda, eskumen-mailen arabera (Estatua, EAE eta abar).
- ↪ EAEko administrazio publikoek, aldundiek, udalek eta beste erakunde publiko batzuek (Arartekoa eta abar) desgaitasuna dutenak sustatu eta laguntzearen alde hartutako konpromisoa. Horrenbestez, zenbait plan onartu dira, administrazioek desgaitasunen bat dutenak sustatu eta babestearen alde hartutako konpromiso zehatzak jasotzen dituztenak (desgaitasun-planak hiru lurraldeetan, enplegu arrunterako plana EAEn desgaitasunen bat dutenentzat, konpromiso instituzionala eta abar).
- ↪ Aurrerapenak zerbitzuetan, laguntzetan, baliabideetan... desgaitasunen bat dutenentzat, Gizarte Zerbitzuen Sistemari, hedatu ahala zehaztuz joan direnak, hiru lurraldeetan, prestazioei, zerbitzuei eta laguntzei dagokienez, hala nola EAEko Gizarte Zerbitzuen Legean jasotako planteamendu arauemailean, pertsonen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak jasotzeko duten eskubidea bermatuta.
- ↪ Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea politikak eta ekimenak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen partaide dela aitortzea. Gainera, aitortze hori elkarriketa zibilerako mahaia aitortzen eta bermatzen duen esparru arauemaile batean zehaztu da, erantzukizun partekatuen erabilerarako gune moduan.
- ↪ Gure eskubide guztien aitortza eta egiazko erabilera, aukera beretan, eskubide osoko herritar gisa. Ez da aski eskubideak aitortzea, horrekin batera ez bada bermatzen haien egiazko erabilera (adibidez, desgaitasunen bat duten pertsonentzako erreserba-kuota onar daiteke lege bidez 50 langile edo gehiago dituzten enpresetarako, baina ez da ezer gertatzen enpresek ez badute hori aplikatzen...).
- ↪ Aurrera egin beharrean atzera egiten da beharrezko zerbitzu eta laguntzen aitortza eta bermea, hala nola baliabide egoki eta nahikoen horniduran. Atzerapausoak ikusten ari gara lortu ziren aurrerapen txikietan. Adibidez:
 - Mendekotasunaren eraispena.
 - Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak aurrera bezala atzera ere ez egitea.
 - Kontuan ez hartzea desgaitasunen bat duten pertsonak EAEko lan-merkatu arruntan sartzeko plana, eta lehentasunez sistematikoki egitea enplegu babestuen alde.
 - Ez da egiazko konpromisorik hartzen pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsalaren eta diseinuaren alde.
 - Murrizketak Osasun Sistemari, gure duintasunari eta bizi-kalitateari eragiten diotena.
- ↪ LISMI eta LIONDAU legeak indargabetzen dituen testu arauemaileak ere (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena) atzerapausoak planteatzen ditu aurreko esparru arauemailearekin alderatuta. Besteak beste:
 - Enpleguan, atzera egiten da: enplegu babestua beste edozein enplegu motaren pare jartzen da.
 - Bizimodu independenteari buruzko kapituluak, irisgarritasun unibertsalari lotutako elementu batzuk jaso baino ez da egiten, eta ez dira osorik eta orokorrean hartzen desgaitasunen bat duten pertsonen nahi edo aukeratu bezala bizitzeko izan beharreko

Hala ere, aurreratutakoa gorabehera, oraindik ere oso handiak dira hirugarren sektorearen erroak, mehatxuak eta ikuspegi berriak. Honako hauek dira azpimarratzekoak:

baldintzak, laguntzak eta abar.

↪ Pertsonen parte-hartzea, inplikazioa eta konpromisoa: bide, formatu, ildo... berriak, demokrazia errealean eta gobernantzan oinarrituta, honako hauek lortzeko bidean:

- Jabekuntza.
- Denon erantzunkidetasuna.
- Gardentasuna.
- Parte-hartzea eta demokrazia gure erakundeetan.
- Kolektiboa motibatzea/aktibatzea.
- Elkartasuna erakundeen artean erreibindikazioei begira, eta pertsona guztien artean zuzentasuna, inklusioa eta gizarte-justizia izatearen aldeko proposamen partekatua.

↪ Babes sozialeko sistemen iraunkortasuna, erantzunetan efikazia, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko gaitasunarekin. Beharrezkoa da berritzea, eta erantzunak desgaitasuna dutenen belaunaldi berrietara egokitzea, bai eta zahardadeak, kronikotasunak eta abarrek dakartzaten erronketara egokitzea ere. Eta ikuspegi berriek honako hauek izan behar dituzte xede:

- Erantzun berriak ematea komunitate-ingurunean.
- Prebentzioa.
- Komunitatearen baliabide eta laguntza guztiak ondo koordinatzea eta dinamizatzea.
- Ingurune naturalean irautea.
- Autonomia, gaitasunen garapen handiena.
- Parte-hartze aktiboa, aktibazioa.
- Bizitza independentea
- Malgutasun handiagoa eta laguntzak eta baliabideak konbinatzeko aukera.

Hitz batean, ikuspegi berriak jaso behar dira, eta ikuspegi horiek, beharbada, zerikusia dute gure erakundeen jatorria eta historia berrinterpretatzearekin. Berriz ere egin behar dizkiogu geure buruari gure erakundeak sortu zirenean egindako

galderak, zalantzan jarri behar ditugu gure zergatia, gure zertarakoa, oinarrian ditugun balioak, gure noranzkoa... ELKARTEANen ikuspuntutik, horrek honako hauek dakartzta berekin:

- ↪ Gizarteko hirugarren sektoreko erakundeei gizarte-eraldaketaren eragile erantzunkide gisa dagokien lehenetsuneko eginkizuna berreskuratzea (ez izatea soil-soilik zerbitzuak ematen dituzten egitura batzuk, horri lotutako merkantilizazio-arriskuarekin). Administrazioek eta erakundeek ere eginkizun hori airtortzea eta babestea.
- ↪ Gogoeta egitea eta ildo, bide eta mezu berriak prestatzea, bere oinarri soziala eta herritar guztiak motibatzeko, eta haien parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko.
- ↪ Desgaitasuna dutenak sustatzeko eta babesteko politika guztien zeharkako erabile-ra egitea. Desgaitasunaren gaia ez da soilik gizarte-zerbitzuen esparrukoa, berdintasuna, parte-hartzea eta inklusioa bermatu behar dituzten esparru eta sistema guztiei baitagokie, eta haiek guztiak konprometitzen baititu.
- ↪ Gizarte-erakundeak lankidetzan aritzea, eta haien arteko elkartasuna garatzea, gizarte-justiziaren, pertsona guztien berdintasunaren eta inklusioaren alde hartutako konpromisoan oinarrituta, pertsonen aniztasuna edo problematika gorabehera.
- ↪ Babes sozialeko sistemek erantzun berriak ematea, eraginkortasun, efikazia eta efizientzia handiena lortzeko, betiere jasangarritasuna gogoan izanda.



LAGUNTZA PERTSONALA ETA BIZIMODU INDEPENDENTEA EAE-KO GIZARTE-ZERBITZUEN BARRUAN:

ESPARRUA, JARRERA, PROPOSAMENAK ETA EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILARI LAGUNTZA PERTSONALERAKO PROGRAMA ZORROTIK KENDU IZANA DELA-ETA BIDALITAKO GUTUNA

ELKARTEANen ustez, bizimodu independenteari eta, hura ahalbidetzeko oinarrizko euskari moduan, laguntza pertsonalari ekiteko, nahitaezkoa da aurrez argitzea bizimodu independentearen kontzeptua, bizimodu autonomoaren kontzeptuari lotuta.

- **Bizimodu autonomoa** desgaitasuna duen pertsonaren egoera jakin bat da: egoera horretan, pertsonak, behar diren laguntzak izanda, eguneroko bizitzako jarduerak gara ditzake, oinarrizkoak bezala instrumentalak ere. “Autonomia” kontzeptua honela dago definituta 39/2006 Legean¹: Norberaren ekimenez, erabaki pertsonalak kontrolatzeko, horiei aurre egiteko, edo horiek hartzeko gaitasuna izatea, betiere norberak dituen arau edo nahien arabera bizitzeko; eta eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak burutzeko gauza izatea (2.1. artikulua²).
- **Bizimodu independentea** egoera bat da, zeinean desgaitasunarekiko pertsonak bere existentziaren gainean erabakitzeke duen ahala baliatu eta bere komunitateko bizimoduan aktiboki parte hartzen baitu, nortasuna libreki garatzeko eskubidearen arabera (1/2013 LEDaren 2.h. artikulua).

Bizimodu independentearen kontzeptuak, betiere **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak** eta desinstituzionalizazioaren eta bizimodu independentearen esparruko nazioarteko mugimenduek (besteak beste, Independent Living Movement, ILM, eta Aniztasunaren Eredua) diotenaren arabera, autonomiaren eta bizimodu autonomoaren kontzeptua gaintzen du, eta hartatik askoz harago iristen da. Honako hauek dakartzta berekin:

- 1) **Norberaren bizitzari buruz erabakitzeke ahalmena baliatzea**, bai eta nortasuna libreki garatzeko ahala ere, horretarako aukera eta gaitasuna izanda, norberaren bizitzaren eta ekintzen ardura duen pertsona gisa. Hau da, ez dugu soil-soilik aipatzen kontrolatzeko, aurre egiteko eta erabakiak hartzeko edo hautaketak autonomiaz egiteko gaitasuna.

1 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.

2 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizartertzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.

- 2) **Parte-hartze aktiboa izatea komunitatearen bizitzan**, gainerako pertsonak bezala (hortaz, aukera berak eta pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsala eta diseinua izanda). Hau da, ez dugu soil-soilik aipatzen eguneroko bizitzako jarduera oinarritzakoak edo instrumentalak egiteko autonomia.

Ikuspegi horren arabera, ELKARTEANekook uste dugu **bizimodu independentea izateko bete behar diren baldintzak** hiru esparru haue-
tan gauzatu behar direla:

- 1) Pertsonak hautatu ahal izateko, eskubideak baliatzeko, parte hartzeko eta bizimodu independentea izateko **gaitasunak eta jabe-kuntza** garatzea.
- 2) **Irisgarritasun unibertsala**, pertsona guztientzako diseinua, aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza ingurunean, komunitate-bizitzako esparru guztietan.
- 3) Parte hartzeko eta bizimodu independentea izateko beharretara **egokitutako lagun-tzen eskaintza nahikoa** izatea.

Horiek horrela, laguntza pertsonala, zehaztu-tako gainerako baldintzekin batera, oinarritzakoa da pertsonak bizimodu independentea izan de-
zan. Hala ere, **laguntza pertsonala emateko baliabidea ezartzean, honako hauek ikusten dira Euskadin:**

- Alde batetik, **euskal herritarrek eskubide eta aukera desberdinak dituzte bizi diren lurraldearen arabera, bizimodu independenterako baliabideei eta laguntzei dago-
kienez:**
 - Araban inork ere ez du jasotzen prestazio hori, eta Bizkaian soil-soilik 4 pertsonak jaso zuten 2013. urtean³.
 - Gipuzkoan, berriz, 2013an, 1.832 pertso-
nak jaso zuten prestazioa, eta 1.657 lagun-

tzaile pertsonal zeuden⁴. Era berean, **beste desberdintasun batzuk ere** ikusten dira, **lurraldeetan laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoak egiteko arauketa-
ri** dagokionez: beste prestazio batzuekiko bateragarritasuna, eskuratzeko baldintzak, onuradunaren eta laguntzaile pertsonala-
ren betebeharrak, gaitasun ekonomikoaren kuantifikazioa, gehieneko zenbatekoak eta prestazioaren edukia.

- Bestalde, **laguntza pertsonala ezin da soil-soilik izan Autonomiarako eta Mendeta-
sunaren Arretarako Sistemako (AMAS) laguntza pertsonalerako prestazio ekono-
mikoa, ez gaur egungo moduan, ez gaur egungo ikuspuntuarekin, ez gaur egungo kopuruetan**. Prestazio ekonomiko hori ino-
la ere ez da nahikoa bizimodu independentea egin ahal izateko, eta bizimodu independen-
terako benetako programa bat prestatu behar da, aurrera eginez **Gipuzkoako Etxean Programaren ikuspegian, Bizkaiko Gizarte Ekintza Saila sustatzen ari den Bizitza Independentean Laguntzeko Zerbitzuare-
nean eta antzekoetan**.

Hori guztia kontuan hartuta, ezinbestekoa da EAEko gizarte-zerbitzuetan honako hauek jasotzea (zehaztutako gainerako baldintzetan aurrera egiteaz gain, beharrezkoak baitira bizimodu independentea izateko):

- 1) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Presta-
zio eta Zerbitzuen Karterak laguntza pertso-
nalerako programa bizimodu independentea-
ri laguntzeko zerbitzuan sartuko duela ziur-
tatzea, AMASeko laguntza per-tsonalerako
prestazio ekonomikoak osatzeko.
- 2) Behar den arau-garapenaren bidez zehaztea zein diren EAEko herritar guztientzako gu-
txieneko kalitate- eta berdintasun-baldintzak laguntza pertsonalari dagokionez.

⁴ Iturria: La prestación económica de asistencia personal en el territorio histórico de Gipuzkoa. Zorione Benedicto Astorkia. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua. ZERBITZUAN. <http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Prestacion%20Economica%20Asistencia%20personal%20Gipuzkoa.pdf>

³ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren 2013ko memoriaren arabera, lau prestazio zeuden indarrean 2013ko abenduaren 31n.



- 3) Laguntza pertsonalerako programa hau ekarpen ekonomiko jakin bat baino gehiago izango dela bermatzea (gaur egun laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoan jasotzen den bezala), eta, horrenbestez, laguntza horri lotutako gastu gutzia estaltzea.
- 4) Pertsonak bere premien arabera beharrezko izan dezakeen beste edozein zerbitzu edo prestazio ekonomikorekiko bateragarritasuna eta osagarritasuna ziurtatzea. Laguntza pertsonalak beste zerbitzu, babes eta prestazio batzuekiko baliabide zeharkakoa eta osagarria izan behar du
- 5) Ebaluazio-sistematika bat jasotzea, laguntza pertsonalaren zertarako, xede eta printzipioen arabera lortutako emaitzak neur-tzeko gauza diren adierazleekin.
- 6) Pertsonen banakako balorazioen bidez eta kekek nahiz iradokizunak jasotzeko sistematika baten bidez parte hartuko dutela ziurtatzea, eta kasuan kasuko herri-administrazioak aipatu keka horiek direla eta erantzuteko eta esku hartzeko protokolo espezifiko bat izatea.
- 7) Laguntza pertsonalerako I+G+B-an oinarritutako hobekuntza-tekniken ezarpena zehaztea eta jasotzea. Eta hori gizarteak parte hartzeko bide berrien proposamenak jaso ahal izateko, egungo idazketa murriztailearekin nekez jaso ahal izango liratekeelako.

8) Mekanismoak ezartzea laguntza pertsonalaren itzulkin ekonomikoa eta soziala neurtzeko eta laguntza pertsonalaren kostu eta etekinaren arteko azterketa konparatiboa egiteko, zerbitzu sozialen sistemen jasangarritasunaren ikuspuntutik.

Hain zuzen ere, zehaztutako lehen puntua (**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karterak laguntza pertsonalerako programa bizimodu independenteari laguntzeko zerbitzuan sartuko duela ziurtatzea**) dela eta, urriaren amaieran Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan eztabaidatutako karteraren azken zirriborroan, aurreko zirriborro guztietan kontrakoa jaso arren, programa hau kendu egin da.

ELKARTEANekook **gutun urgente bat igorri genion urriko azken astean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Juan María Aburto jaunari**, aurreko horrek gugan eragindako harridura eta haserrea adierazteko, eta eskatu genion lehenbailehen biler bat egin eta gure kolektiboari azaltzeko zergatik erabaki den laguntza pertsonalerako programa karteratik kentzea; gainera, hura aurreko zirriborroetan adierazita zegoen bezala karteran berriz sartzea aztertzeko eskatu genuen.

Uste dugu **kentze hori larri-larria dela, eta ez datorrela inola ere bat** desgaitasun fisikoa duten pertsonen kolektiboak zuzendu eta gidatuta bizimodu independentearen alde diharduten nazioarteko mugimenduekin eta haiek aldeztu dituzten kontzeptuekin. Gainera, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan oinarritutako argudioen aurkakoa da, eta, hain zuzen ere, argudio horiek azaldu dizkiogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gure jarrera-dokumentu eta ekarpen guztietan, hala nola gure kolektiboak gaiak hausnartzeko sustatutako ekimen eta bileretan. ELKARTEANen ustez, programa hori kentzea **oso a-tzerapauso larria da, bai eta beste kolektibo batzuekiko konparaziozko bidegabekeria ere, haiei bizimodu independenterako laguntza-zerbitzua aitoritzen zaielako.**



HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN ARABAKO IKASLEEN FAMILIEN PLATAFORMA

Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen familiek plataforma bat osatu dute, ikasle horiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea defendatzeko eta ikasle horietako bakoitzaren gaitasunak ahalik gehiena garatu daitezela eskatzeko.

eginaren eginez elkarteko kideok ere kezka bera dugu; izan ere, ikusten ari gara eskubide hori apurka-apurka murrizten ari dela Administrazioa egiten ari den baliabide-doikuntzen ondorioz.

Plataformako kideek manifestu bat egin eta erakunde batzuei eman diete (besteak beste, Hezkuntza Sailari, Eusko Legebiltzarrari eta Arartekoari). *eginaren eginez*ek plataforma horren aldarrikapenekin bat egin du, eta aldarrikapen horiek babesten ditu, gure aldarrikapenak ere bai baitira.

Hezkuntza da gure Elkartearen jardueraren eremuetako bat. 35 urtez aldarrikapen-ekintzak egin ostean —*denboraldi horretan, hezkuntza espezifiko eta bereizlea izatetik “integratzailea” izatera aldatu dela ikusi dugu*—, gaur egun, hezkuntza inklusiboa aldarrikatzen dugu hezkuntza-maila guztietan: haur-hezkuntzatik nahitaezko hezkuntzaren osteko etapara eta unibertsitatera, bai eta arautu gabeko prestakuntzan

ere. Beharrezkoa iruditzen zaigu laguntza-premiak goiz detektatzea, desgaitasunen bat duten haurrak eta gazteak ez bakartzea eta beharrezko laguntza ematea ikasitakoak ahal bezainbat aprobetxatzeko eta pertsona gisa ahal bezainbat garatzeko. Hezkuntza Premia Bereziak Dituzten Arabako Ikasleen Familien Plataforma osatu izanak agerian jartzen du aspalditik salatzen ari garen egoera bat, eta antolatza eta elkarlanean jardutera animatu nahi ditugu, desgaitasunen bat duten pertsonen giza eskubideen alde egiteko; kasu honetan, hezkuntza duintasunez jasotzeko eskubidearen alde egiteko.

*eginaren eginez*eko kideok kalitatezko **hezkuntza** eskatzen dugu. Kalitatezko hezkuntzak, hain zuzen ere, aipatu ditugun neurriak ezarriko ditu, arreta goiztiarra eta hezkuntza-maila guztietan pertsona guztientzako **hezkuntza inklusiboa** bermatzeko, eta, betiere, desgaitasunen bat duten haur eta gazteen eta haien familien partaidetza eta ahalduzkoak bermatuko du erabakietan eta dagozkien prozesuetan.

Ekainaren 19an, elkarretaratzera deitu zuten Arabako Hezkuntza Ordezkaritzaren aurrean, Hezkuntza Premia Bereziak Dituzten Arabako Ikasleen Familien Plataformaren manifestua sinbolikoki emateko.



AUZOKIDEAK ESKOLA-KANPAINA

Eginaren Eginez elkarteak eta Panta Rhei antzerki-konpainiak dibertsitate funtzionala edo desgaitasunen bat duten pertsonen eguneroko bizitzaren berri eman diete haurrei eta gaztetxoei, aktoreek eta txotxongiloek antzeztutako antzezlan baten bidez.

Antzezenaren bidez, gizarte-errealitate ezberdinen arteko bizikidetzaguneak irudikatu nahi dituzte, eta “oztopo fisiko eta emozionalak gaindi daitezkeela” frogatu.

eginaren eginez elkarteak eta **Panta Rhei** antzerki-konpainiak beste eskola-kanpaina bat egin dute ikastetxeetan, aurten. “Auzokideak-Compañer@s de barrio” antzezlanak agerian jarri nahi du gizartearen dibertsitatea. Antzezlanean, sei pertsonaiak hartzen dute parte: hiruk desgaitasunen bat edo dibertsitate funtzionala dute; beste bat jatorriz afrikarra da baina Euskadin jaioa da; eta beste biak dibertsitate funtzionalik gabeko mutil bat eta neska bat dira. Txotxongiloek eta konpainiako aktoreek elkarri eragiten diote, eta beren eguneroko bizitzako bizipen batzuk antzeztu dituzte, dibertsitatea nagusi den mundu bat erakusteko, bai eta “denok gara berdinak” paradigma apurka-apurka “denok gara ezberdinak” paradigma bilakatzen ari dela erakusteko ere.

Elkarri lotutako istorioak dira, askotariko herriarrei, ezinezko amodioei, gainbabesari eta ekologiari buruzkoak. *eginaren eginez* elkartekook faltan sumatzen genuen haur eta gaztetxoengana gerturatzeko tresna bat. Horren harira, antzerki-konpainiarekin lankidetzan jarduteko aukera sortu zen, ikuskizunaren gidoia eta txotxongiloak egiteko. Txotxongiloen kontakizunen bidez, dibertsitate funtzionala edo desgaitasunen bat duten pertsonen eguneroko bizitzaren berri ematen zaie haurrei eta gaztetxoei. Ezagutzen ez dugunak mesfidantza eta jarrera diskriminatzaileak sortzen ditu. Dibertsitatean oinarritutako hezkuntzak herritar solidarioak hezi behar ditu, ingurunearekin konprometituta daudenak. Orain, Elkarteak tresna baliagarri hori

du, gaztetxoengana iristeko, eta, ikuskizunen bidez, era ludiko eta entretenigarri batean helaraz diezaikegu aukera-berdintasunaren aldeko gure aldarrikapena.

Elkartearen eta antzerki-konpainiaren lankidetzari esker, produktu artistiko bat sortu dugu, dibertsitate funtzionala ardatz hartuta herritarrak sentikor bihurtzeko eta bestelako errealitatei leku egingo dieten bizikidetzaguneak irudikatuzko. *eginaren eginez* elkarteak arrakastatsutzat jo du kanpaina; izan ere, ikastetxeetan egin diren bost ikuskizunetan, gutxi gorabehera 900 ikaslek ikusi dute antzezlan. Ikasleen harriera izugarria da. Hori nabaritu dugu, eta hori esan digute ikastetxeetako irakasleek. Oso garrantzitsua da alderdi horiek txikitatik lantzea, alderdi horiek barneratu, normalizatu eta beren heldu-bizitzara eramán ditzaten. Horrela, geroko belaunaldiei begira, bazterkeria ezabatzeko bidean aurrera egingo dugu.



Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailak desgaituekin lan egiten dugun elkarrekin ematen dituen diru-laguntzei esker egin da kanpaina, bai eta Elkarteak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin duen hitzarmenari esker ere. Hiriko eta probintziako ikastetxeetan sentsibilitate-kanpainari eustearen alde dago *eginaren eginez* elkarrekin. Hezkuntza lagungarri zaigu bazterkeria ezabatzeko eta etorkizuneko helduak jabeazteko ezberdintasunak gorabehera gizarteak berdintasunezkoa izan behar duela.

HEZKUNTZA

eginaren egínezek, desgaitasun fisikoa duten arabarren eskubideen eta erabateko gizarte-partaidetzaren alde lan egiten duen elkarte den aldetik, oso garrantzitsutzat jotzen du pertsonak txiki-txikitik erabili ahal izatea eskubideak. Eta, horregatik, gure Elkartek, bai eta oro har gizarteak ere, lehenasunezko eta oinarriko helburutzat du ikastetxean irisgarritasuna, inklusioa eta aukera-berdintasuna bermatzea.

Berez, irisgarritasun unibertsalaren arloan, 1997an, gizarteak lege-baliabide bat ezarri zuen ikastetxean poliki-poliki irisgarritasun unibertsala lortzeko, eta nahitaez bete beharreko arau bat atera zuen; arau horri esker, hein handiagoan edo txikiagoan, irisgarritasun-maila jakin bat lortu da. Dena den, oraindik, elementu eta oztupo askok eragozten dute pertsona batzuek autonomia pertsonala izatea eta aukera-berdintasunez parte hartzea, eta *eginaren egínez* elkarteko kideok prest gaude ahal dugun neurrian elementu eta oztupo horiek ezabatzeko.

Halaber, gure lurraldean nahitaez bete beharreko arau-esparruaren arabera (Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena eta 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena), nahitaezkoa da baldintza jakin batzuk bermatzea, desgaitasunen bat duten pertsonak bermatua izan dezaten hezkuntza inklusiboa, kalitatezkoa eta doakoa gainerako baldintza berberetan jasotzeko eskubidea.

Edonola ere, zalantzarik gabe, helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da arlo horietan eskumena duten eragile guztien borondatea eta partaidetza: Administrazioa, familiak, eta ikastetxeari lotutako pertsona guztiak, hala nola ikasleak, irakasleak, irakasle ez diren langileak, zuzendaritza, eskola-kontseilua eta guraso elkarteak.

Desgaituentzako irisgarritasunari, inklusioari eta aukera-berdintasunari dagokionez Arabako ikastetxeen egoeraren diagnostia

egite aldera, eta, halaber, **eragileak are hobeto ezagutu eta sentsibilizatze aldera**, haien **partaidetza ezinbestekoa baita hezkuntzaren arloan desgaituen eskubideak benetan bermatzeko**, *eginaren egínez* elkarteko kideok ekimen hau jarri dugu abian, lurraldeko ikastetxe guztietan gai hauei buruzko informazioa biltzeko:

- Ikastetxean premia bereziak dituzten ikasleentzako datu kuantitatiboak eta ezaugarriak.
- Ea ikastetxean irisgarritasun unibertsalari buruzko arauak betetzen diren (20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzeko, eta 68/2000 Dekretua).
- Desgaituek ikastetxean parte har dezaten eta aukera berberak izan ditzaten ezarritako laguntza-gailuak eta hartutako neurriak.

eginaren egínezek ikastetxeetako zuzendaritzen informazioa eta iritzia jaso nahi du, bai eta eskola-kontseilua eta ikastetxeetako guraso elkarteena ere. Horregatik, hiru galdera-sorta ezberdin bidali dizkiogu Arabako 176 ikastetxeetako bakoitzari, ikastetxe bakoitzak talde horietako bakoitzari dagokion galdera-sorta eman diezaion, ikastetxearen egitura eta ezaugarriak kontuan hartuta kasuan-kasuan egokien iruditzen zaienaren arabera.

Orain, galdera-sortak jasotzen ari gara, eta, Arabako ikastetxeetatik jasotako informazioarekin, gaur egungo egoeraren analisia eta diagnostia egingo dugu. Analisi eta diagnosi hori oinarri hartuta, lanean jarraituko dugu, eragile nagusien partaidetzarekin eta inplikazioarekin ekintzak zertzeko eta abiarazteko, hezkuntza-arloan desgaituen irisgarritasuna, inklusioa eta aukera-berdintasuna bermatze aldera. Badakigu jakin arlo horretan egiten den edozein aurrerapausok balio erantsia ekarriko duela eta Arabako gizarte guztia izango dela horren onuradun.

ENPLEGUA

Azaroaren 7an, enpleguari buruzko eztabaida bat egin zen Eusko Legebiltzarrean (*Eztabaida monografikoa, langabeziari eta pobrezari aurre egiteko Jaurilaritzak garatu beharreko estrategia integralari buruz*). Eztabaida horren harira, egínaren egínezek proposamen eta aldarrikapen sorta bat aurkeztu die Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoei, proposamen eta aldarrikapen horiek aztertu eta onartuko dituztelakoan, eta jakinarazi die prest dagoela elkarlanean aritzeko.

Desgaituak lan-merkatu arruntean guztiz txertatzea:

- HERRI-ADMINISTRATIOEI KONPROMISOA ESKATZEA ENPLEGU-POLITIKA AKTIBO BATZUK GARATU DITZATEN, DESGAIUAK LEHENTASUNEZ LAN-MERKATU ARRUNTEAN TXERTATZEA SUSTATUKO DUTENAK (apirilaren 7ko 13/1982 Legeak, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeari buruzkoak, VII. tituluan ezartzen duenarekin bat), azken urteotan Euskadin enplegu babestuari (Enplegu Zentro Bereziak) ematen zaion laguntzaren heinean gutxienez.
- DESGAIUEN TREBAKUNTZA ETA LANBIDE-PRESTAKUNTZA BABESTEA:
 - ↪ Prestakuntza-zentroak irisgarriak direla bermatzea. Batez ere, prestakuntza pribatuko zentroak.
 - ↪ Oso prestakuntza-formatu praktikoak garatzea: prestakuntzarekin batera, praktikak egitea enpresan. Laguntza-ildoak aztertzea, lanpostua egokitu ahal izateko.
 - ↪ Pertsonen motibazioa eta autoestimua lantzea, eta pertsonak ahalduntzea.
 - ↪ Lanbide Heziketaren (LH) aukera aktibatzea, lanpostuak egokitzeko gune den aldetik: ikertzea, lanpostuen egokitzapenean berrikuntzak egitea, teknologiak baliatzea, etab.
- DESGAIUEN ENPLEGUAN ZER-

NOLAKO BALIO ERANTSIA DUTEN ERAKUSTEA:

- ↪ Desgaituak lan-merkatu arruntean txertatzeko jardura egokiak erakustea; batez ere, dibertsitatea agerian jartzeko bide ematen duten lanpostuetan txertatzeko jardura egokiak.
- ↪ Enpresariak hobeto jabeatzea zer balio eransten dioten desgaituek enpresari: ekoizpenean, lan-giroan, jarreretan, etekinean, ahaleginean, lanaren balioan...
- ↪ Desgaituen talentua, gaitasuna eta ahalmena ikusaraztea enpresari, eta estereotipo negatiboak ezabatzea. Desgaituek zenbat eginkizun egin ditzaketen erakustea (ez prestakuntza gutxiko lanpostuetan soilik).
- ENPLEGU BABESTUKO LAN-BALDINTZAK ZAINZEA ETA ENPLEGU ARRUNTERA IGAROTZEARI DAGOKIONEZ EGIN DIREN LORPENAK IKUSARAZTEA:
 - ↪ Pertsona horien lan-baldintzak duin bihurtzeko, hitzarmen kolektiboak sektoreko hitzarmen baliokideekin parekatzeko xedez.
 - ↪ Lanpostuz igotzeko eta beste enplegumodalitate batzuetara igarotzeko aukerei dagokienez.
 - ↪ Zentro horietan lan egiten duten pertsonen eskubideen sindikatu-ordezkaritzari dagokienez.
 - ↪ Langileak kontzientziaztea beren lan-eskubideak defenda ditzaten.



- ↪ Enplegu arruntean txertatzea lortzen duten pertsonen datuak jendaurrean azaltzea, arrakasta-adierazle gisa.
- ↪ Langileen gogobetetasun-maila sistematikoki ebaluatzea.
- NEURRI EGOKIAK ABIARAZTEA ENPLEGU PUBLIKOAN:
 - ↪ Kuotak aplikatzea, eta taldeen eta kategorien araberako ezberdintasunak ezartzea eta oro har lanpostu guztietara hedatzea.
 - ↪ Sarrera-probak eraginkortasunez egokitzea, berdintasuna berma dezaten.
 - ↪ Emakume desgaituentzako berariazko kuota bat ezartzea, desgaitasunerako erreserbaren barruan.
 - ↪ Zenbait aldundi aplikatzen ari diren “egokitasun-ziurtagiria” deritzona ez aplikatzea, eta praktika diskriminatzaile hori ezabatzeko egin beharreko ekintzak egitea.
 - ↪ Enplegu publikoko poltsetan erreserbak ezartzea.
 - ↪ Lanpostuen egokitzapena bermatzea: lanpostuetan lan egiten duten desgaituek beren eginkizunak egiteko beharrezko diren egokitzapen guztiak egitea.
 - BATERAGARRITASUNA ETA PRESTAZIOEN MALGUTASUNA:
 - ↪ Lan-jarduera eta pentsioen kobrantza (modalitate ezberdinetan) bateragarri egitera bideratutako arau-aldaketak egitea edo eskatzea (eskumena nork duen).
 - TEKNOLOGIA-BERRIKUNTZAREN ARLOKO GARAPENAK SUSTATZEA, DESGAITUEN LANPOSTUAK ETENGABE EGOKITZEKO, eta lanpostuz igotzeko edo lanpostuko aldatetara egokitzeko aukera ematea.



AHALDUNTZEKO LANTEGIA

eginaren egínezek emakumeak ahalduntzeko lantegi bat antolatu du, Maitena Monroy Romerok dinamizatu. Maitena indarkeria sexistan espezializatutako prestazaillea da, eta fisioterapeuta.

Bi saio egin genituen: azaroaren 12an eta 19an. Saio horietan, eduki hauek landu genituen:

- ↪ Erasoak identifikatzen ikastea, eta indarkeria aztertzea: jatorria, indarkeriaren erakitze prozesuaren alderdi guztiak eta ondorioak.
- ↪ Eguneroko bizitzako indarkeria-egoerei erantzuteko eta egoera horiek konpontzeko mekanismoak eta ekintzak bilatzea.
- ↪ Gune bat sortzea, gure eskubideez, erantzukizunaz eta gaitasunez jabetu gaitezen, indarkeria mota hori ezabatzeko; izan ere, indarkeria horrek gizonen baldintza beretan bizitzea galarazten die emakumei.
- ↪ Erasoak identifikatzeko baliabideak eta tresnak ematea emakumei.
- ↪ Indarkeriari buruzko mitoak eta errealitateak. Indarkeriaren ondorio indibidualak eta kolektiboak aztertzea.

Seminarioko 4. aretoan, 17 emakume bildu ziren: gehienek, hots, hamabik desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa zuten, bik adimen-desgaitasuna, batek buru-osasuneko desgaitasuna eta bik ez zuten desgaitasunik.

Lantegi horretan, lehenbiziko aldiz landu genuen emakume desgaituentzako autodefentsaren kontzeptua. Partaideek oso modu positiboan baliotsi zuten lantegia, oso dinamizatzailea izan zelako eta kolektiboko emakumei aukera eman zielako beren bizipenak beste emakume batzuekin partekatzeko. Beharrezkotzat jo zen dibertsitate funtzionala duten emakumeen berezko ezaugarrietan sakontzea; hori dela eta, lantegiak jarraipena izango du, norabide horretan lanildoak zehazteko.

GIZARTE-ESKUBIDEAK

egínaren egínez dibertsitate funtzionala duten Arabako pertsonen aldarrikapen-plataforma da; herritar guztien aukerak parekatze aldera, gizartean esku hartzen du, eta zerbitzu profesionalak ematen ditu. egínaren egínezek bat egin du Gizarte Langileen Elkargo Profesionalaren GIZARTE ESKUBIDEEN ALDEKO KOMUNIKATUAREKIN, eta azaroaren 6an Gasteizko Correos plazan egindako ELKARRETARATZEAN parte hartu zuen, bereizkeriarik gabeko gizarte justuago eta solidarioago baten alde.

GIZARTE ESKUBIDEEN ALDEKO KOMUNIKATUA

Arabako Gizarte Langileen Elkargo Profesionaleko kideok, gizarte-zerbitzuen eta oro har gizarte esku-hartzearen profesionalak garen aldetik, komunikabideetan Euskadiko herritar guztien gizarte-eskubideei buruz etengabe agertzen diren albisteak ikusi ditugu, bai eta gure eskubideak erabiltzeko are murrizketa gehiago egiteko mehatxuak ere, eta hauxe adierazten dugu:

Gure lana balio zatiezin eta unibertsal hauetan dago oinarrituta: giza duintasuna, askatasuna, gizarte-justizia, bakea eta berdintasuna. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean daude jasota balio horiek. Gure jardueraren oinarritzko printzipioak, berriz, DUINTASUNA, ASKATASUNA eta BERDINTASUNA dira. Pertsona guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, bakoitzak bere berezitasunak eta desberdintasunak izanagatik bateragarriak direnak.

Horren harira, adierazi nahi dugu kezkatuta gaudela, gure gizarte-babeseko sistema etengabe jartzen baita zalantzan.

25 urteko lanaren, hausnarketaren eta profesionalen, buruzagi politikoen, hirugarren sektoreko elkartearen eta erakunde publikoen arteko kontsentsuaren emaitza da sistema hori. Urteekin, hobetu eta aldatu egin da,



baina, oraindik, asko dago egiteko. Sistema horrek kohesioa ahalbidetzen du, eta gizarte-haustura galarazten, eta, horretaz gainera, bide ematen du sektore ahulenen eta pribilegiatuenen arteko tartea gainditzeko.

Euskadin muturreko ahultasun-egoeran dauden milaka herritar bizi dira laguntza horiei esker (emakumeak, adinekoak, etorkinak, epe luzeko langabeak...). Gaur egun, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzei esker, gure autonomia-erkidegoko herritarrak diren milaka adingabek bermatuta dauzkate oinarritzko eskubideak.

Babes-sistemak aurrera egitea nahi dugu, sistema horren kudeaketa hobetuz. Pertsonekin eta pertsonentzat egiten dugu lan, bereizkeriarik gabe; hortaz, kudeaketa eraginkorra eta, batez ere, gizatiarra goa egiteko eskatzen dugu.

Pertsona guztientzat egin nahi dugu lan, eta horretarako bermeak behar ditugu. Egiten ari diren murrizketek karitatearen eta ongintzaren agente bilakatzen gaituzte; urte asko ari gara atzera egiten, eta ez dugu hori gerta dadin utziko.

Giza eskubideek, gaur egungo gizarte-eskubideek, lagundu egiten digute. Eskubide horiek bete egin behar dira; ez daude kotizazioaren eta negoziazioaren mende. Eskubideak ez dira negoziatzen.

**GIZARTE-ESKUBIDEAK,
ATZERAPAUSORIK EZ!**

ALDUNDIAK ABIAN JARRI DU LAGUNTZA PERTSONALERAKO ETA BIZIMODU INDEPENDENTEA EGITEN LAGUNTZEKO ZERBITZU BERRI BAT, FEKOOR-EK KUDEATUA

FEKOORek Bizimodu Independentea Egiten Laguntzeko Zerbitzu (BIELZ) berri bat kudeatuko du, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagunduko duena. Zerbitzu horrek aukera emango du Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren (LPPE) laguntza-orduak osatzeko.

Zerbitzu hori aspalditik eskatu du gure kolektiboak, eta aurrerapauso bat da autonomia pertsonalaren eta komunitateko partaidetzaren sustapena bermatzeko laguntza-premiak estaltzeko.

(Bilbon, 2014ko azaroaren(e)an)

Abian jarri den zerbitzu esperimental berriak Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jasotzen du, eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) jasotzen dutenei laguntza-orduak osatzean datza, baldin eta ordu horiek eskas badira mendetasuna ebaluatzeko prozesuaren ostean Bizkaiko Foru Aldundiak proposatzen duen Bizimodu Independenteko Banakako Planean hautemandako laguntza-premiak estaltzeko.

Zerbitzu berri hau bultzatuko duen lantalde teknikoak orientazioa eta aholkuak emango dizkie bizimodu independenteari lotutako gaitan interesa duten pertsonari. Halaber, Bizimodu Independenteko Banakako Planak egin, ebaluatu eta plan horien jarraipena egingo du, eta Bizitza

Independenteko Ereduari buruzko prestakuntza emango die erabiltzaileei eta banakako laguntzaileei.

Hasieran, zerbitzuak 32 erabiltzaile artatuko ditu (20 emakume eta 12 gizon), 25 urtetik 65 urtera bitarteko adina dutenak. Profila heterogeneoa da; hortaz, zenbat pertsona eta bizimodu dauden, horien guztien premiei erantzutera bideratuko da laguntza, pertsona horien eguneroko bizitza kudeatzen laguntzea baita helburua.

Helburu hori lortze aldera, programak 20 banakako laguntzaile ditu (11 emakume eta 9 gizon), 25 urtetik 51 urtera bitartekoak, esperimentazioa dutenak banakako laguntza ematen FEKOORek aspalditik kudeatzen dituen komunitate-partaidetza sustatzeko programetan, hala nola banakako laguntza-programan eta aisia-programan.

Bizimodu Independentea Egiten Laguntzeko Zerbitzu berriaren bidez, erabiltzaileei laguntza emango zaie beren burua garbitzeko (higienea eta norberaren garbitasuna), etxeko bizitza egiteko (etxeko eginbeharrak egin, janaria prestatu...), komunitate-bizitza egiteko (erosketak, kudeaketak egiten lagundu —medikuarenera joan, paperak izapidetu eta abar....—), eta aisia- eta kultura-ekintzak egiteko (besteak beste, kirol- eta prestakuntza-ekintzak egiten edo lana bilatzen lagundu).

Lanean hasi aurretik, banakako laguntzaileek oinarritzko prestakuntza jaso dute. Prestakuntza lau modulutan banatuta dago, eta, moduluetan, honen berri ematen da: FEKOORen elkarte-



proiektua, gizartea aldatzera eta pertsonak eta inguruneak ahalduntzera bideratutako lan-ikuspegia, eta FEKOORek proposatzen duen Bizitza Independenteko Eredua. Horretaz gainera, prestakuntzan, badago bloke bat, banakako laguntzari eta horrek berekin dakartzan zereginei eta ikuspegi profesionalari buruzko kontzeptuak lantzeko.

Beste moduluak praktikoagoak dira, eta, horietan, hau irakasten da: mugikortasun murriztua dutenak nola lekualdatu eta mugitu, eskuzko gurpil-aulkia eta motorduna nola erabili hiri-guneetan, eta lehen laguntza.

Hurrengo prestakuntza-zikloa zerbitzuaren erabiltzaileentzat izango da. Prestakuntza-ziklo horrek laguntza mota horien kudeaketa izango du ardatz, eta gai hauekin lotutako alderdiak landuko ditu: FEKOORen Bizimodu Independenteko Eredua, banakako laguntzaren norainokoa eta laguntza horrek berezko dituen zereginak.

Hartzaileak eta eskabidea

Zerbitzu hori eskatzeko izapideari ekiteko, beharrezkoa da Banakako Arreta Planaren (BAP) barruan mendetasuna ebaluatzeko prozesua egitea edo BAP aldatzea eta prestazio hori berariaz eskatzea. Ebaluazioa egin dutenek Banakako Arreta Plana (BAP) aldatzeko eskatu beharko dute eskatzailearen errolda-udalerriko oinarritzako gizarte zerbitzuan, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren erregistroetan ere.

Laguntza-premiak asetzeko banakako laguntzaileak kontratatzeak gastuak dakartza berekin, eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoak (LPPE) gastu horiek estaltzen laguntzen du. Laguntza-premiak, lanari eta hezkuntzari ez ezik, pertsonak egiten duen eguneroko bizitzako edozein ekintzari ere lotuta daude, hala nola eguneroko bizitzako oinarritzako jardueri.

Zerbitzua eskatzeko, ezinbestekoa da edozein mendetasun-maila aitortua izatea, 18 urtetik 65 urtera bitartekoa izatea, bizitza aktiboa izatea eta banakako laguntza kudeatzeko gauza izatea.

Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailea Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) jasotzeko egokitzen jo ostean, beharrezkoa da hitzorduaren aurretik Bizimodu Independenteko Banakako Plana (BIBP) eramatea Gizarte Ekintza Sailera eta, halaber, kontratu bat aurkeztea, banakako laguntza zenbat orduz eskatzen den adierazten duena.

BIELZen, banakako laguntzaren premiak planifikatze aldera, bizimodu independentea egiten laguntzeko plana egingo da eskatzailearekin batera. Tresna horretan, hau guztia jasoko da: bizitza-plana (ekintzak, nahiak, gustuak...), plan hori gauzatzeko dituen laguntzak, eta zer egiteko behar duen banakako laguntza, pertsona bakoitzak egunero egiten dituen (edo egin nahi dituen) gauzen arabera.

Plan hori egin ostean, banakako laguntza ordukopuru jakin batez esleituko zaio, BIELZen esleipen-irizpideei jarraituz. Ordukopuru horrek bide emango dio pertsonari bere bizitza-proiektua egiteko. Beti hartu beharko da kontuan Bizkaiko Foru Aldundiak egindako Bizimodu Independenteko Banakako Planean (BIBP) hitzartutakoa.

Prozesu hori egin ostean, banakako laguntzaile bat esleituko zaio, oinarritzat hartuta erabiltzaileak eskatutako profila edo laguntzaileak erabiltzaileari bere bizimodua egiten laguntzeko izan beharreko berariazko gaitasunak.

FEKOOR gizarte-ekimeneko erakunde bat da, Eusko Jaurlaritzak 'herri-onurako' erakundetzat izendatua; desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonen Bizkaiko 21 elkarte nagusiek osatzen dute, eta 8.000 kide baino gehiago ditu. Duela 35 urtez geroztik ari gara lanean desgaituen eskubideak sustatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko. Gizarte-berrikuntzako proiektuak eta programak abiarazten ditugu. Proiektu eta programa horien helburua da gizartean parte hartzeko guneak eta aukerak sortzea, inklusioa, aukera-berdintasuna eta bizimodu independentea giltzarri direla.

MARCELINO FERNÁNDEZ IZANGO DA FEKOOR-EN PRESIDENTEA

FEDERAZIOAREN PRESIDENTEA IZANGO DA, BENE-REN ORDEZKARI GISA

Marcelino Fernández, Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkartearen (BENE) ordezkari gisa, erakundearen presidentea izango da hurrengo ekitaldian. Zuzendaritza Batzordeak, hain zuzen ere, Federazioaren Zuzendaritza Batzordearen karguak berritze aldera elkarteek proposatutako pertsonak berretsi ditu.

Marcelino Fernández izango da FEKOORen presidentea hurrengo ekitaldian. FEKOORen Zuzendaritza Batzordeak, hain zuzen ere, batzorde horren karguak berritze aldera elkarteek proposatutako pertsonak berretsi ditu, uztailaren amaieran egindako Ohiko Batzar Nagusian erabakitakoari jarraituz.

FEKOORen Batzarra da Federazioaren erabaki-organo gorena. Presidentea txandakatu egiten da, urtero, kide diren elkartearen artean, eta aurreko urteko presidenteordeak hartzen du postua.

Hortaz, Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkartearen presidente Marcelino Fernández izango da Federazioaren presidentea aurrerantzean. Zuzendaritza Batzordearen eta Batzarren presidenteari dagokio, beste elkarte-zeregin batzuen artean, Federazioaren urteko kudeaketa-plana proposatzea, bai eta erakunde publiko eta pribatuekin hitzarmenak eta akordioak izenpetzea ere, gure elkarte-proiektua eta desgaitasun fisikoa eta organikoa duten kideei eskaintzen dizkiegun laguntza-zerbitzuak garatze aldera.

Marcelino Fernándezek ibilbide luzea egin du eta esperientzia handia du desgaitasunaren aldeko Bizkaiko elkarte-mugimenduan; arlo hori gertu-gertutik ezagutzen du, eta arlo hori garatzen lagundu du, konpromiso pertsonal eta profesionalaren bidez.

Cristina Echevarria izango da erakundeko presidenteordea, ALCER Bizkaia, giltzurrunetako gaitzen aurkako elkarteko ordezkari gisa.

Bizkaiko ostomizatuen elkarteko (ARGIA) José Ignacio Ansoleaga izango da idazkaria, Ermuako elbarrituaren elkarteko (BIDARI) Iñaki Ramos Aizpurua izango da diruzaina, eta Bizkaiko bizkar-muinaren kaltetuen elkarteko (Bizkel) Ana Isabel Dorado izango da idazkariordea.

Zuzendaritza Batzordeak zuzendaritza-kargu guztiak berretsi ditu. Zuzendaritza Batzordeari dagokio elkarteek kargu hori hartze aldera proposatutako pertsonak izendatzea.

BENE

Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkartearen (BENE) FEKOORi federatutako elkarte bat da, eritasun neuromuskularrak dituzten pertsonen eta haien senideek osatuta. Elkarte horren helburu nagusia da eritasun horiek dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, ikerketa eta eritasun neuromuskularretarako tratamenduak bultzatzea. Elkarteak eritasunari buruzko orientazioa eskaintzen du, eta informazioa ematen du eritasunen jatorriari eta balizko terapiari buruz. Halaber, dibulgazio-ekintzak egiten ditu, jendea eta administrazioa eritasun horiei lotutako arazoekiko sentikor bihurtzeko.

Horretarako, autolaguntzako taldeak dituzte, eta laguntza psikologikoa ematen dute, bai eta eritasun neuromuskularrei buruzko informazioa eta orientazioa ere (ikerketen gaur egungo egoera, aholku genetikoa eta abar).



FEKOOR-EK GIZARTE-BERRIKUNTZAREN ASPID SARIA JASO DU, DESGAIUENTZAKO LAGUNTZA ESKAINTZEN DUTEN “ETXEGOKI” APARTAMENDUEN FORU-PROIEKTUAGATIK

Gizarte-berrikuntzaren ASPID sariak desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako laguntza eskaintzen duten “Etxegoki” apartamenduen arrakasta saritu du, autonomia pertsonala sustatzeko eta kolektibo hori gizartean parte hartzera bultzatzeko eredu den aldetik. Sari-banaketa irailaren 25ean egin zen, Lleidako Seu Vellako gazteluan. Kataluniako Generalitateko presidente Artur Más izan zen ekitaldiko burua.

Desgaitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak (FEKOOR) jaso du ASPID - Associació de Paraplègics i Discapacitats Físics de Lleida elkarteak urtero ematen duen gizarte-berrikuntzaren saria, erakundeak kudeatzen dituen “Etxegoki” apartamenduengatik. Apartamendu horiek Bizkaiko Foru Aldundiarenak dira, eta desgaituentzako laguntza eskaintzen dute.

Sari-banaketa iragan irailaren 25ean egin zen, Lleidako Seu Vella gazteluan. Ekitaldiko buru izan ziren Kataluniako Generalitateko presidente Artur Más, udalerriko alkate Ángel Ros y Domingo, Lleidako Diputazioko presidente Joan Reñe, Segriáko Eskualde Batzordeko presidente Pau Cabré eta Lleidako Unibertsitateko errektore Roberto Fernández Díaz.

FEKOORen zuzendari Juan Carlos Solak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazioaren eta Plangintzaren zuzendari nagusi Andoni Rezagorriek jaso zuten saria, eta proiektu horren arrakasta azpimarratu zuten. Haien hitzetan, “gizarte-aldaketa bultzatze aldera Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako lankidetzaren

fruitua da, desgaituek beren bizitza-proiektuak garatu ditzaten eta gizartean parte har dezaten”.

ASPID irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, Lleidan desgaitasun fisikoaren arloan erreferentziakoa. Aurten, 20. urteurrena ospatu du, 20 urtez aritu baita lanean kolektibo horren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko. Sari horren hamazazpigarren edizioa izan da aurtengoa. Lanaren, elkartasunaren, komunikazioaren eta berrikuntzaren arloan desgaituen gizarte- eta lan-integrazioa sustatzen duten erakunde, pertsona eta enpresen lana aintzatesten du sari horrek.

FEKOORi emandako gizarte-berrikuntzaren sariaren bidez, desgaituentzako laguntza eskaintzen duten “Etxegoki” apartamenduen proiektua administrazioaren eta gizarte-elkarteen arteko lankidetzaren formula arrakastatsua dela aitortzen da, desgaituen autonomia pertsonala sustatzeko laguntza-baliabideak garatzeari lotutako gizarte-berrikuntzaren arloan.

Gizarte- eta teknologia-berrikuntza

ETXEGOKI desgaituentzako laguntza eskaintzen duten apartamentuen zerbitzu bat da, irabazi-asmorik gabekoa. Egonaldi iraunkorrerako nahiz aldi baterako da, eguneko arretarik gabe. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan sartuta dago, eta mendetasuna eta desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat da. Zerbitzu hori Bizkaiko Foru Aldundiarena da, eta FEKOORek kudeatzen du.

Apartamenduak Bilboko Txurdinaga auzoan daude, eta 2011n zabaldu ziren, 34 desgaitu hartzeko. Zehazki, zerbitzuak 32 apartamendu ditu (haietako bik aldi baterako bina leku dituzte), 18 urtetik 60 urtera bitarteko pertsonentzat. Pertsona horiek % 33ko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa izan behar dute, eta mendetasun-egoera lege honetan jasotako gradu eta maila guztietan aitortua: abenduaren 14ko 39/2006 Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.

Baliabide horrek lantalde profesional bat du: 17 laguntzaile eta bizitza independenteko teknikari bat. Langile horiek apartamentu horietan bizi direnei lagun egiten diete, eta bizitza-proiektuak garatzeko laguntza ematen, pertsona ardatz duen plangintzan oinarritutako metodologia baliatuz. Horri esker, pertsonak beren eguneroko bizitza

finkatzen dute, beren ohituren eta betebeharren arabera. Horrek ikasketei, lanari, adiskidetasun-harremani, aisiari eta abarri berriro ekiteko aukera ematen die, eta autonomia pertsonala eta komunitatean parte hartzea sustatzen du.

Laguntza-teknologiaren alderdi bat, hain zuzen ere, ingurunea kontrolatzeko sistemak dira: eraikinak funtzionamendu domotikoa du, besteak beste irisgarritasunaren, erosotasunaren eta komunikazioaren arloetan funtsezko alderdiak hobetzeko. Bertan bizi diren pertsonak, beharra badute, etxebizitzako gailu guztiak kontrolatze-

ko urrutiko agintea eduki dezakete: polipastoak (sabaiko garabiak), ohe artikulatuaren kontrola, telefono-deiak eta atezain automatikoa, laguntza eskatzeko deiak eta alarmak, telebista, argiak, pertsianak, atek automatikoki irekitzea, igogailua kontrolatzea eta abar.

Teknologia modu etikoan erabiltzea eta teknologia banan-banako giza laguntza malguarekin konbinatzea; horra baliabide horren arrakastaren gakoak. Baliabide horrek pertsona aktibatu nahi du, komunitatean parte-hartze handiagoa izan dezan eta bizi-kalitatea hobea izan dezan.



FEKOOR-EK “OZTOPORIK GABE” AZOKAN HARTU DU PARTE

FEKOORek eta Federazioa osatzen dugun elkarteok erakusketa-gune bat eta presentzia nabarmena izan dugu OZTOPORIK GABE azokan. Aurten, BEC - Bilbao Exhibition Centre egin da azoka, urriaren 17tik 19ra. OZTOPORIK GABE azokaren helburua da desgaitasun edo mendetasunen bat duten pertsonen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzen diharduten sektore guztien topaleku izatea.

OZTOPORIK GABE azokaren bosgarren edizioak autonomia, irisgarritasuna, denontzako diseinua, partaidetza eta bizi-kalitatea izan ditu ardatz. Desgaituen eskubideak bultzatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko lanean diharduten arlo horretako erakundeek, enpresek eta elkarteek hartu dute parte azoka horretan. Elkarteekin eta herritarrekin elkartzeko gune bat izan da, aukera eman diguna gure elkarte-programa jakitera emateko eta zabaltzeko, bai eta la-

guntza ematen diegun pertsonen inklusioa bultzatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko eskaintzen ditugun programak, zerbitzuak eta ekintzak jakitera emateko eta zabaltzeko ere.

OZTOPORIK GABE 2014 azokan, hainbat motatako desgaitasunak dituzten pertsonen eta haien senideei laguntzen diharduten Bizkaiko erreferentziatzeko elkartearen erakusmahaiak egon dira ikusgai. Desgaitasun horietako batzuk dira ikusmen-desgaitasuna, desgaitasun fisikoa, organikoa eta neuromuskularra, buruko gaixotasuna, garun-paralisia, gaixotasun arraroak eta Down sindromea.

Erakusketa komertzialarekin batera, hitzaldi-sorta bat egin da. Hasteko, laguntza-teknologia berriei buruzko mahai-inguru bat egin da. Mahai-inguru horretan, Etxegokiren koordinatzaile Luís Melúsek hartu du parte. Desgaituentzako laguntza eskaintzen duten Etxegoki apartamenduak Bizkaiko Foru Aldundiarenak dira, eta FEKOORek kudeatzen ditu. FEKOORen enplegu-zerbitzuko teknikari Maitane Bergarak eta Lourdes Quincocesek enpleguari buruzko mahai-inguruan hartu dute parte, “Oztoporik gabeko enplegua bultzatzen” hitzaldian.

EMAKUNDEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA- BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE LANKIDETZAT IZENDATU DU FEKOOR

Emakumearen Euskal Institutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako erakunde lankidetzat aintzatesi du FEKOOR. Erakundeak berdintasunaren kulturarekiko duen konpromisoaren garrantzia azpimarratu du aintzatespen horrek, bai eta arlo horretan egindako lanaren garrantzia ere.

Emakunde - Emakumearen Euskal Institutuak, Izaskun Landaidaren zuzendaritzapean, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako erakunde lankidetzat izendatu du FEKOOR. Federazioak aukera-berdintasunaren alde egiten dituen ekimenen garrantzia azpimarratzen du horrek, eta arlo horretan egindako lana aintzatesten.

Iragan azaroaren 14an, jendaurreko ekitaldi bat egin zen, Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko Ordezkaritzan, Federazioaren lana aintzatesteko. Ekitaldi horretan, Emakundek aintzatesitako erakundeak bildu ziren; hainbat jarduera-arlo eta -sektoretako erakundeak, hain zuzen.

FEKOORen zuzendari Juan Carlos Solak jaso zuen aintzatespena. Haren hitzetan, “akuilu garrantzitsua da erakundearen lana eta berdintasunaren kultura garatzeko konpromisoa bultzatzeko; helburua da genero-ikuspegia erakundearen programa eta zerbitzu guztietan txertatzea, sistematikoki eta zeharka; izan ere, uste osoa dugu FEKOOR osatzen dugun pertsonen eta laguntzen diegun pertsonen berdintasunaren aldeko apustua indartuko duela”.

Berdintasunaren arloko aintzatespena eskura-tzeko, lehenik eta behin, Emakundek izenpetutako konpromiso-dokumentua izenpetu zen, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako politika garatzeko, eta arlo horretan berriarazko

ekintzak abiatu direla egiaztatu, hala nola berdintasun-plan bat badela, beste baldintza batzuen artean.

Hain zuzen ere, bada urtebete baino gehiago FEKOORen Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2013-2016 Plana abian dela. FEKOORen Batzar nagusiak 2013an onartutako tresna horrek erakundearen jarduna bideratzen du berdintasunaren arloan, erakunde osatzen duten pertsona guztien partaidetza bermatzen du, eta erakunde osatzen duten emakumeen eta gizonen premietara eta interesetara egokitutako jarduerak eta esku-hartzeak bultzatzen ditu.

Denbora honetan, helburu horretarako sortutako FEKOORen Berdintasun Batzordeak urtero-urtero jarri du abian plana, planean jasotako bost arlo estrategikoetan planifikatutako ekintzen bidez. Hauek dira bost arlo estrategikoak: genero-ikuspegia zeharkatzea; berdintasunezko kudeaketa-prozesuak garatzea; programen eta proiektuen diseinuan, plangintzan, esku-hartzean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txerta-tzea; kontziliazio erantzukidea kudeatzea; eta osasuna eta emakume eta gizonenganako tratua ona sustatzea FEKOORen.

Orain, Batzordea jokabide-kodea ari da diseinatzen, erakundearen sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzeko eta horren aurka egiteko; pauso garrantzitsua, inondik ere, berdintasunerako bidean.

Berdintasunaren aldeko pausoak

Aldi berean, Berdintasunaren aldeko Emakume Batzordearen bidez, FEKOORek beste ekimen garrantzitsu batzuk sustatu ditu emakumeen eta gizonen eskubideak parekatzeko; esaterako, “Tartekari Sarea - Gizarte-laguntzarako eragilearen sarean” parte hartu du. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak sustatzen du sare hori. FEKOORek 2012an egin zuen bat esperientzia horrekin, Bizkaiko gizarte-laguntzarako eragilearen sarearen partaide izateko eta indarkeria matxistaren biktima diren emakume desgaituak identifikatzeko eta haiei laguntzeko.

Ekimen horren barruan, FEKOORek abian jarri zuen Genero-indarkeriaren biktima izan diren

emakume desgaituen arretarako zerbitzua. Zerbitzu horrek laguntza, informazioa eta orientazioa ematen die bikotekidearen edo bikotekide izandakoaren eskutik tratu txar fisikoak, psikologikoak, sexualak edo beste edozein motatako tratu txarrak pairatzen dituzten edo pairatu uste dituzten emakume desgaituei, hots, desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten emakumei.

Gizarte-laguntzarako eragile gisa prestatutako hiru emakume desgaitu aritzen dira arretalanetan zerbitzu horretan: laguntza eta orientazioa ematen dute zer pauso eman jakiteko, eta informazioa eta aholkuak ematen dituzte, tratu txarren egoera hauste aldera administrazioak emakumeen esku jartzen dituen baliabide guztiei buruz.

Bestalde, duela gutxi, Bilboko Udalak eta FEKOOR-ek berriro ere izenpetu zuten protokolo bat, genero-indarkeria pairatzen duten emakume desgaitu bizkaitarrak identifikatzen, bideratzen eta haiei laguntza ematen laguntzeko. Protokolo hori lagungarri izango da hobeto identifikatzeko emakume desgaituen aurkako genero-indarkeriaren kasuak, bai eta osoko arreta hobe emateko ere. Horretaz gainera, protokolo horren bidez, emakume desgaituek desgaitasunik gabeko emakumeen eskubide eta prestazio berberak dituztela bermatuko da.

Bilboko Udalaren Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarretako Sailaren eta FEKOORen arteko lankidetzeta 2010eko urrian hasi zen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako genero-indarkeria prebenitzeko, emakume horiei arreta osoa emateko, eta jendea gai horrekiko sentikor bihurtzeko lankidetzeta-akordio bat izenpetu zutenean, Bilbon.

Akordia indarrean egon den hiru urte hauetan, FEKOORek egindako eskaerari erantzun zaio. Zehazki, hau izan zen FEKOORen eskaera: bikotekidearen edo bikotekide izandakoaren eskutik tratu txarrak pairatzen ari diren Bilboko emakume desgaituen, hots, desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa dutenen, egoera hobetzea, haien berariazotasunak kontuan hartuta, udalaren harrera-pisuak egokitzea, eta ahaleginak koordinatzea, dibertsitate funtzionala duten emakumei gainerako emakumeen baldintza berberetan emateko arreta, tratu txarrak prebe-

nitzeko eta jendea gai horrekiko sentikor bihurtzeko.

200DIK GORA DESGAITUK ATERA DIOTE ETEKINA FEKOOR-EN AISIA INKLUSIBOKO ETA OPORRALDIKO PROGRAMARI

Aurten, gutxi gorabehera erakundeko 200 kidek atera diote etekina FEKOORen aisia inklusiboko programaren ekintza ugarietakoren bati. Programa hori herri-administrazioekin lankidetzan (**Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko Foru Aldundia**) egin da, eta helburutzat du kolektiboak aisia baldintza berberetan eta normaltasunez izateko duen eskubidea murrizten duten oztipoak arintzea.

Aurten, FEKOORek aisia-programa zabal bat eskaini die elkartekideei, eta aukera eman die, besteak beste, Mallorcara eta Galiziar joateko, eta Londresen eta Parisen zirkuitu konbinatu bat egiteko. Helburua izan da turismo- eta aisia-baliabideak erabiltzeko bide ematea, ahalik eta irisgarritasun-maila handienarekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako **2014ko oporrak** programaren barruan, Federazioak aurten **hiru bidaiak** antolatu ditu; bidaiak bat **Mallorcara**, irailaren 5etik 12ra; zirkuitu konbinatu bat **Londresen eta Parisen**, urriaren 1etik 8ra; eta beste bidaiak bat **Londresera**,..... Horretaz gainera, egonaldi bat antolatu du **Cuntisko (Galizia)** bainuetxean, urriaren 26tik azaroaren 1era.

Aisia eta oporrak programak, Lasaialdiak familientzat programak, Sancho Azpeitia Zentro Soziokulturalean programatutako ikastaroak eta lantegiek, eta eskaintzen ditugun kirol-modalitate egokituek helburutzat dute pertsona horiei auke-

ra ematea autonomia pertsonal handiagoa izateko aisia-ekintzez eta oporrez gozatzeko, eta, bide batez, zaintzaileei atsedenaldi bat ematea.

% 33ko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo organikoa duten elkartekideentzat izan dira bi-daia guztiak.

Aisialdia atsedenaldiak

Halaber, FEKOORen aisialdiko atsedenaldi-programak helburutzat du mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten familiei atsedenaldiak ematea eta, aldi berean, desgaituei aukera ematea aisia-esperientziez gozatzeko, taldean aktiboki parte hartuz eta begiraleen banakako laguntzarekin.

Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen programa horretan, 70etik gora familia daude izena emanda. Programa horren barruan, aurten 180 leku

eskaini dira, programatutako 9 irteeretan banatuak. Irteera horien artean, asteburuko irteerak izan dira 7; partaideak, besteak beste, Madrilerara, Lekarozera, Zarautzera, Hondarribira, Olorra eta Egea de los Caballerosera joan dira. Horretaz gainera, Aste Santuan, 5 eguneko ekintza bat egin da Cudilleron (Asturias), eta, irailean, 10 eguneko opor-atsedenaldi bat, Benidormen.

Aisia inklusiboko eskaintza orokorra hori **Sancho Azpeitia Zentro Soziokulturealean** programatutako ekintzekin (sormen-lantegiak, informatikako ikastaroak, antzerkia, euskara, eguneko txangoak...) kudeatzen eta osatzen da, eta helburutzat du desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonak komunitateko aisialderbitzuetan parte hartzera bultzatzen dituzten ekimenak garatzea.



ELKARTUK PRESTATUTAKO IKERKETA-PROIEKTUA: ESTABLEZIMENDUAK ZER MAILATAN DOITZEN DIREN IRISGARRITASUN- ARAUDIRA

Elkartuk ikerketa-proiektu bat gauzatu du, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ireki berri diren merkataritza- eta aisialdi-establezimenduak irisgarritasun-araudia zer mailatan betetzen duten aztertzeko.

Zehazki, 2011ko ekaina eta 2013ko ekaina bitartean hirigintza-lizentziaren bat izapidetu zituzten 404 establezimendu aztertu dira; horien artean, bi multzotan bereizi dira maiatzaren 25eko 19/2012 Errege Dekretua, Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa, indarrean sartu aurretik eta ondoren eskatutako jarduerak.

Ikerketaren emaitzetatik honako ondorio hauek eratortzen dira, laburbilduz:

- Aztertutako establezimenduen gehiengoak (% 58,6) ez ditu betetzen legez ezarritako irisgarritasun-baldintzak establezimendueta-rako sarbideei dagokienez. Ez-betetzea area-gotu egiten da (% 77,2) araudiaren aldaketa-rekin.
- Kanpoko atearen zabalera ez du indarreko legedia betetzen aztertutako kasuen % 22,3an.
- Egiatzatu da establezimenduen % 13,4k ez dutela bermatzen oztoporik gabeko atari eta ibilbideak izatea. Era berean, aintzat hartze-koa da irisgarritasun-arloko araudia betetzen ez duten barruko ateak dituzten establezimen-duen ehunekoa (% 36,9).
- Jendeari arreta emateko salmahai eta leihatil-
lei dagokienez, oso urria da legez ezarritakoa

betetzen dutenen ehunekoa (% 29,1).

- Gutxi dira, orobat, mugikortasun urriko per-
tsonek erabiltzeko moduko bainugelak dituz-
ten establezimenduak (% 47,9); hala, bada, ez
dituzte betetzen legez ezarritako hainbat bete-
behar.
- Aztertutako establezimenduen %98k ez dauka
ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako
seinalizazio egokia.

Proiektu honi esker objektiboki egiaztatu ahal izan dira 2011tik aurrera hirigintza-lizentziaren bat izapidetu duten Gipuzkoako erabilera pu-
blikoko establezimenduek irisgarritasun-arloan dituzten gabezia larriak; gainera, egoera larritu egin da “express lizentzia” izenekoa indarrean sartu zenetik.

Finean, agerian gelditu da desgaitasunak di-
tuzten pertsonen eragozpenak jartzen dizkien errealitatea, ezin baitute gainerako herritarren baldintza beretan jo baliabide erkideetara eta, horrenbestez, nahitaezkoa da, batetik, indarreko araudia betetzea bermatuko duten beharrezko neurriak hartzea, eta, bestetik, gizarte irisgarri eta inklusiboago batera bidean aurrera egiten lagunduko duten ekintza positiboko neurriak sustatzea.



ELKARTUK BERE WEBGUNEA BERRITU DU

Gure webgunea berritu dugu, espazio erakargarriago eta irisgarriagoa izan dadin, parte-hartzea errazten duena. Webgune berri honek Federazioaren jarduera eta ekintzei buruzko informazioa eguneratua eskainiko du, edo gure kolektiboaren interesekoak diren gaiet buruzkoa; aldi berean, Gipuzkoan desgaitasunak dituzten pertsonen kontsultak, iradokizunak eta salaketak jasotzeko aukera ere emango du.

Webgune honetan Elkartuk kolektiboaren ekintza-batasunaren onurarako eta desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen eskubideen defentsarako egindako jardueren berri ematen du, beti ere, gizarte irisgarri eta inklusiboago bat lortze aldera. Federazioaren ibilbide historikotik abiatuta, aldarrikapen-ekintzen helburuak eta horien esku-hartzea zer eremutan gertatzen den azaltzen du, baita gure jarduna bideratzen duten misioa, ikuspuntua eta balioak ere.

Orobat, Elkarturen jarduerak eta programa jasotzen ditu. Horien guztien ardatz nagusia irisgarritasun unibertsala sustatzea da; horixe baita, hain zuzen ere, desgaitasun fisikoa dugunok eskubide osoko hiritar gisara gure gizarte-ingurunean erabat parte hartu ahal izango dugun gizarte bat lortzeko osagai erabakigarria.

Horrez gainera, gure elkarte-jardueraren bidez sortzen diren agirizko baliabideetara (Aldizkari elektronikoa, Elkartu Aldizkaria, Baliabideen gida, etab.) jotzeko aukera ere eskaintzen du, eta edozein arlotan (hiriko edo eraikuntzetako irisgarritasuna, garraioa, hezkuntza, aisialdia, bereizkeria, etab.) aukera-berdintasuna izateko eskubide-urraketa orori buruzko salaketak helarazteko aukera ere ematen du.

Hortaz, informazio-, komunikazio- eta partaidetza-espazio bat bultzatu nahi dugu, Elkarturen eta gure elkarte-ekintzaren hartzaileren arteko lotura sendotuz, hartzailere horiek desgaitasuna duten pertsonak ez ezik, gizartea, oro har, eta hori osatzen duten gizarte-eragileak direla.

Gure webgune berritua bisitatzea (www.elkartu.org) eta aktiboki webgunean parte hartzea gonbidatzen zaituztegu, zuen ideiak, iritziak, iradokizunak eta salaketak helaraziz.

GIPUZKOAKO ETXEBIZITZAKO LURRALDE- ORDEZKARITZAREKIN IZANDAKO BILERA

Elkartuk lan-bilera izan zuen Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzarekin, desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen irisgarritasun-baldintza egokiak dituen etxebizitza duin batez gozatzeko duten eskubidearekin lotutako gaiet buruz. Hona hemen, laburpen gisara, bileran jorratutako gaiak:

- Mugikortasun urrituko pertsonetara moldatutako etxebizitzak desklasifikatzea eragozteko beharrezko mekanismoak ezartzea.
- Mugikortasun urrituko pertsonetara moldatutako behar adina etxebizitza bermatzea, bai jabetza-/azalera-araubidean eta bai alokairuan.
- Indarreko araudiak mugikortasun urrituko pertsonentzako etxebizitzak gordetzeari buruz ezarritakoa betetzen dela bermatzea.
- Alokairura (modalitate ezberdinetan) bideratutako etxebizitza moldatuen kopurua nahikoa izan dadin bermatzeko beharrezkoa.
- Babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko eskakizun ekonomikoak berrikustea, desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen horietara errazago jotzea sustatzeko.
- Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko orduan, etxebizitza-beharrizanari buruzko eskakizunaren salbuespenak berrikustea, modu egoki eta zehatzagoan jasotzeko desgaitasunak dituzten pertsonen zer beharrian dituzten irisgarritasun-baldintzei buruzko arlo guztietan.

Funtsean, Elkartuk defendatu zuen proposatutako neurriak, etorkizunean jorratuko direnak, erraztu egingo dutela desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen kolektiboak babes publikoko etxebizitzetara jotzeko aukera, hori funtsezko tresna baita kolektibo horretako kideen buruaskitasuna bultzatzeko eta beren bizi-kalitatea hobetzeko.

AUTOBUS-GELTOKI BERRIA DONOSTIAN

Elkartuk hainbat alegazio aurkeztu dizkio Donostian Atotxako autobus-geltoki berria gauzatzeko eta horren jarduerari buruzko Proiektuari, herritar guztiak geltoki hori berdintasunez erabiltzeko modua eman-goduten irisgarritasun-baldintzak bermatze aldera. Hauek dira aurkeztutako hobekuntza-proposamenak:

- Aintzat hartzea azaroaren 23ko 1544/2007 Errege Dekretua, ezgaitasunen bat duten pertsonak garraiobideetara iritsi eta horiek erabiltzeko behar dituzten irisgarritasuneko eta bereizkeriarik gabeko oinarrizko baldintzak onesten dituen (aparkaleku, kanpoko eta barruko ibilbide, eskailera, arrapala, igogailu, bainugela, makina automatiko, nasa eta abarrei dagokienez).
- Erreserbatutako aparkaleku-plazak sarbi-deetatik eta oinezkoen gunetik ahal bezain gertuen jartzea.
- Eraikuntzetatik ateratzeko moduetan bermeak ezartzea desgaitasunak dituzten pertso-

nentzat, indarreko araudian xedatutako baldintzetan.

- Bainugeletako irisgarritasun-baldintzak hobetzea hainbat alderdiri dagokienez (komunen garaiera, argiak piztea, alarmak, atek, etab.).
- Aparkalekuetako ordainketa-kutzazain automatikoetan beharrezko irisgarritasun-baldintzak bermatzea.
- Aurreikusitako seinalizazio-baldintzak hobetzea, bereziki orientazio-seinaleei dagokienez.

Horiek dira, besteak beste, Elkartuk aurkeztutako proposamenak, hiritarren mugikortasunerako funtsezko interesa duen instalazio batek irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren printzipioak bete ditzala bermatzeko, horrela pertsona guztiak erabil ditzaten eta berdintasun-baldintzetan mugi ahal izan daitezen.



ZAINTZAK-CUIDADOS ETA GUNEA

Elkartuk aktiboki parte hartzen du Zaintzak-Cuidados ekimenean, hots, berdintasunean oinarritutako zaintzen gaia lantzen duen informazio- eta topaketa-gunean.

Hainbat urte daramatzagu Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoarekin eta beste erakunde batzuekin batera lanean (ASADE, BIDEZ BIDE, TALDELAN, OREKA SAREA), hasiera batean diagnosi bat eta Udal Laguntzako Plana egiteko eta, orain, adostutako neurriak indarrean jartzeko fasean.

Hala, bada, gure lanaren xedea da zaintzen gaia eta bizitzaren iraunkortasunarena jorratzen laguntzea, oinarritzko hatsarre batzuetatik abiatuta:

- ↪ Berdintasuna
- ↪ Zeharkako lana
- ↪ Autodeterminazioa
- ↪ Duintasuna lortzea
- ↪ Dibertsitate eta ezberdintasunekiko errespetua
- ↪ Esku-hartze politikoa

Halaber, GUNEA - Gipuzkoako berdintasunerako partaidetza eta elkarrizketa espazioan parte hartzen ere hasi da Elkartu. GUNEA Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren eta mugimendu femi-

nista zein emakumeen elkarte-mugimenduaren artean sustatu dute.

Hauk dira GUNEAren xede eta eginkizunak:

1. Emakumeei eragiten dieten foru-politika orokorrak prestatu eta aplikatzeko orduan zein horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko orduan, mugimendu feministak eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarte-mugimenduak izan beharreko parte-hartzea egituratzea.
2. Foru-botereekin harremanetan jarriz, foru-politikak garatzean ikuspuntu feminista sartuko dela zaintzea eta berdintasuna lortzera bideratutako iradokizunak eta neurri politikoak proposatzea.
3. Emakumeen buruaskitasuna eta botere-gaitasuna sustatzea.
4. Emakumeen arteko sareak eraiki daitezzen bultzatzea eta emakumeen kolektibo eta elkarten arteko lankidetzeta eta koordinazioa erraztea.
5. Emakumeek edota sexismo- edo matxismo-mota berberak erasotako beste talde batzuek paira ditzaketan bereizkeria- edo indarkeria-forma oro ikusarazi eta salatzea.

Horrela, Elkartuk genero-berdintasuna jorratzen duten partaidetza-foro eta -guneetan egoten jarraitzen du, desgaitasunak dituzten emakumeek jasaten duten bereizkeria bikoitza agerian jartzeko eta herritar guztien aukera-berdintasuna bermatzeko beharrezkoak diren politika eta neurriak aldarrikatzeko.



BONO-TAXIA MUTRIKUN ETA ZESTOAN

Mutriko eta Zestoako udalek azken hilabeteotan onartu dute garraio-bide publiko kolektiboak modu buruaskian erabiltzeko zailtasunak dituzten mugikortasun urrituko pertsonentzako edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako diru-laguntzak erregulatzeko araudia, beren lekualdatze-erako zerbitzu osagarri bat emate aldera.

Mutrikun, neurri horren helburua herritik kanpora joateko lekualdatzeak –lanera, ikas-tetxera, arreta goiztiarreko programetara edo salbuespenezko mugikortasun-beharrei erantzuteko– erraztea da, eta taxia, garraio publikoa (hirugarren baten laguntzaz) edo garraio partikularra baliatzea aurreikusten da; arautzen den eta diru-laguntza jasotzen duen garraio-zerbitzua udalerrriaren barrurako da, eta onuradunari bono-taxiak emanez gauzatzen da.

Abenduaren 23ko 88/2008 Foru Dekretua, bono-taxi izeneko laguntzak arautzen dituen, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabe uzteak eragindako hutsunea hein batean estaltzea da aipatutako udalek bultzatutako neurri horien xedea. Foru Dekretu haren helburua Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan diru-laguntzak arautzea zen, garraio publikoak erabiltzea eragozten zieten mugikortasun-arazo larriak zituzten pertsonak, garraio-bide osagarri bezala, taxia erabiltzeko.

BIZITEGI-ERAIKINETAN BERRITZE- ETA IRISGARRITASUN- OBRAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

Donostiako Udalak diru-laguntzak ematea arautu du hiriko bizitegi-eraikinetan eta etxebizitzetan berritze-obrak egiteko sustapen pribatuak bultzatzeko.

Hona hemen irisgarritasunaren arloan eragina duten diruz lagundutako obrak:

- Elementu komunak:** Irisgarritasuna (igogailuak, arrapalak, plataformak, etab.). Diruz lagun daitekeen gastuaren % 20 estaltzen da, BEZ kanpo, 20.000 euroko gehienezkoraino.
- Elementuak pribatiboak:** Etxebizitza mugikortasun urrituko pertsonentzat eta 70 urtetik gorako pertsonentzat moldatzea (bainugela, ateak, argi-sentsoreak, ura eta gasa). Diruz lagun daitekeen gastuaren % 20 estaltzen da, BEZa kanpo, 6.000 euroko gehienezkoraino.

Diruz lagundutako obrak egiten dituzten eraikinek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- Donostiako udalerrian egotea.
- 10 urtetik gorako eraikina izatea, aurre-egoeran ez egotea eta obrak egiteko udalbaimena ematea eragozten duen hirigintza-eraginik ez izatea.

Era berean, Irungo udalak laguntza publikoak aurreikusten ditu irisgarritasun-obrak egiteko. Hala, bada, irekita dago oraindik Irungo San Migel Anaka eremuan kokatutako bizitoki-eraikinetan irisgarritasun-baldintzak hobetzera bideratutako diru-laguntzak eskatzeko epea, eraikin horiek Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) badute.

Honako hauek jotzen dira irisgarritasuna hobetzeko obratzat:



- a) Kaletik atari eta etxebizitzetarako ibilbideak moldatzea. Igogailuak instalatzeko eraikinek finkatuta egon behar dute lehenik.
- b) Etxebizitzen barrualdea moldatzea. Barruan sartzen dira bainugeletako obrak (bainu-ontzia dutxaz ordezkatzeta), ateak moldatzea, sukaldeak moldatzea, argi- eta ur-sentsoreak jartzea, etab.

Diruz lagungarriak diren jardunak gauzatuko diren eraikin bakoitzeko, etxebizitzetara bideratutako eraikitako azaleraren m² bakoitza 500 euroz biderkatuz lortuko da gehienezko zenbatekoa, eta trasteleku eta lokaletara bideratutako eraikitako azaleraren m² bakoitza 250 euroz biderkatuz.

Aurkeztu beharreko agiriak, diru-laguntzen onuradunak, laguntzak emateko prozedura eta deialdiaren gainerako alderdiei buruz gehiago jakiteko, 2014ko abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jasotako oinarrietara jo dezakezue.

